

• Zubi artikoa •

XXI. mendeko ardatz geoestrategikoa

Klima aldaketa ez da denentzat kaltegarria izan. Lurra berotzeak bide berri bat ireki du Ozeano Artikoan itsasontziek Europatik Asiara nabigatu dezaten eta Murmansk bezalako herrien ekonomia suspertu egin da.

ROBERT SCARCIA

KOLAKO PENINTSULAK bistaratzen duen paisaia kizkurraren gain batean, Errusiaren ipar-mendebaldeko muturrean, monumentu erraldoi bat dago buruzut eta harro, zerumugari begira. Aliosha da, garai bateko armada gorri sobietar goretsi eta beldurgarriko soldadu ezezaguna. Estatuak hainbat metroko altuera dauka, eta Murmansk hiriaren adorea gogorazteko eraiki zuten. Murmansk Sobietar Batasuneko hiri martirietako bat da, bere sakrifizioarekin lortu baitzuen nazien 1941eko inbasioa geldiaraztea. Aliosharen azpian dago Murmansk, Barents itsasoaren ur artikoa hamabi kilometrotan barrena lehorra sartu eta sortzen den fiordoaren ertzean. Errusiako arrantza porturik garrantzitsua eta Artikoko errusiar ontzidi bikainena osatzen duten ontzi izotz-hausle nuklearren basea izateaz gain, bere 300.000tik gora biztanleekin “Zirkulu Polar Artikoko hiri handiena da, Artikoko ‘metropoli’ bakarra”, bertako biztanleek esaten duten bezala.

Planetako latitude berberean baina beste longitudeetan dauden herriein gertatu zenaren alderantziz, Murmansk ez da punta-puntako gunee militar edo arrantza-gunee soila, ez eta meatzari-herria ere; aisialdirako lekuak eta kultur guneeak, liburutegiak, antzokiak, jate-txeak eta esportatzeko landatzen dituzten lorentzako berotegiak dituen benetako hiria da. Arrazoi estrategiko eta ideologikoak aintzat hartuta, sobietarrek asko inbertitu zuten Murmansken. Alde batetik, NATOk ipar-iparrean –aldamenean dagoen Norvegian– daukan ordezkarietatik gertu, eta iparralderantz begira, portu bat eduki beharra zegoen, eta bestetik, Urriko Iraultzatik jaiotako “gizon-emakume berriek” tundrako kostalde latz eta bizitzeko desegokian irudimen handiko hiri

bizi-bizi handi bat eraikitzen bazekitela frogatu beharra zegoen.

Alabaina, Sobietar Batasuna desagertzearekin bukatu egin dira halako leku estrategikoan bizitzeagatik Estatuak ematen zituen garai bateko diru-laguntzak eta, ondorioz, “Artikoko metropolia” pisu demografikoa galtzen ari da. Gainera, atzeraldi ekonomiko globalaren erruz, eskualdeko mineral eta metalen eskaera kezkatzeko moduan jaitsi da.

Murmansk, pasabide garrantzitsua

Baina hala ere, Murmansk XXI. mendeko ardatz ekonomiko eta geoestrategiko garrantzitsuenetakoa izatera irits liteke: zubi artikoa-aren basea. Klimaren berokuntzak daukan ondorio nagusietakoa geruza glaziarra txikitzen ari dela da eta horrek ahalbidetzen du Ozeano Artikoan urtearen zati handi batean ekialdeko hemisferiotik mendebaldeko hemisferiora eta Europatik Asiara, muturretik muturrera, nabigatzeko bide bat egotea. Bide horrekin, zenbait kasutan hamaika nabigazio egun gutxiago behar izaten dira eta 800.000 dolar aurreztu daitezke erregai eta lan kostuetan. Artikoko ibilbide berriaren eraginez, azken hamar urteetan bost aldiz biderkatu dira nabigazio konpainiek zuzenean eta zeharka egindako inbertsioak. Aker Yards ontziola norvegiarrak eta Samsung korearrak biderkatu egin dute Artikoko nabigazio baldintzetara egokitutako branka eta popa dituzten itsasontzien produkzioa. Alegia, itsas-azalera “trinkoa”, itsasoan izotza duena, jasan dezaketen gero eta ontzi gehiago egiten dituzte. Lehengo urteko abenduan, itsasontzi mota hori erosteko 152 eskaera egin ziren, eta horiek dira gaur egun itsasoan dabiltzan horrelako itsasontzien ia erdiak. Kanadako kostaldea zaintzen duen



Ezkerreko irudian, Aliosha soldaduaren estatua, Murmansk hirirearen adorea gogorarazteko eraikia. Goian, hiriko portua, eta behean, Lenin izeneko izotz-hausle nuklearra, 1989ra arte funtzionatu zuena.

guardiaren azken datuek ere erakusten dute Kanadaren jurisdikziopeko ur artikoetan barrena egindako bidaiak asko ugartu direla, 78tik 132ra.

Gauzak horrela, Murmansk zeresan ikaragarria dauka. Hala erakusten du Kanadan, Hudson badiako mendebaldeko kostaldean, Manitoban dagoen Churchill herriko portura 2007an Murmanskeko lehenengo itsasontzia iritsi izanak. Churchill mila biztanle inguruko herria da, eta orain arte “hartz zurien munduko hiriburua” esaten zioten, turistak hara joan ohi direlako hartzak ikustera.

Klima aldaketaren eraginez, Hudson badiako nabigazio aldia luzatu egin da, eta orain ekainetik azaro erdialdera arte ibili daitezke han itsasontziak. 2007. urtean, errekor guztiak hautsita, 600.000 tona salgai atera ziren Churchillleko portutik, eta kopuru horrek berriz gora egin zuen 2008an. Omnitrax konpainia estatubatuarren trenbide azpiegitura zaharra erosi du, berritu eta Churchilletik Estatu Batuetako trenbide sarera iristea errazagoa izan dadin.

Laburrean, zubi artikoak dagoeneko badauzka erabilgarria izateko behar dituen bi itsasertz nagusiak: “Artikoko metropolia” eta “hartz zurien hiriburua”. Murmansk eta Churchill patua Ipar Amerikaren eta gorabidean diren Asia erdialdeko herrialdeen arteko merkataritza harremanak garatzeko ardatz estrategikoak izatea da. Baikorrenek uste dute Europa erdialde eta ekialdetik Estatu Batuetara

eragiten den itsas merkataritza bereganatzeko lehian ere sartu litekeela Murmansk.

Baina bada merkataritza hutsaz harago doan beste zerbait: Murmansketik barrena Ipar Amerika zeinekin eta... Afganistanekin lotuko duen itsas bide baten kontuak zabalitzen hasiak dira. Zuhurtzia handiz egin diren zenbait ikerketa estrategikok adierazten dute, luzera begira, Mendebaldeak Afganistan garaitu nahi badu, herrialde okupatuaren ekonomiak kanpoko munduan integratu beharko duela. Izan ere, klan eta tribuz osatutako gizarte egituraren eta merkataritzaren mende baitago ekonomia afganiarra eta horrela talibanak bertan jaun eta jabe baitira.

Mundu osoan gertatzen ari den atzeraldi ekonomikoak eragozten ez badu, zubi artikoa benetan sendotuko da, Sobietar Batasunak garai batean Murmansk alde egindako apustuak bere fruituak emango ditu, eta “Artikoko metropolia” garatu eta, ironikoa bada ere, merkatu ekonomiako gune bilakatu da.

Afganiar errebeldeak garaitu ondoren salgai eta materialak Murmansketik pasatzen badira, nor daki, agian Aliosharen begiratu granitikoa ere irribarre bihurtuko da eta, soldadu errusiarrek “aberriaren aldeko gerra handian” irabazitako garaiezin ospea borrokari afganiarrek suntsitu bazuten ere, baliteke ospe hori, zubi artikoari esker, laster berreskuratzea. Bitartean, garaiezintasunaren oroigarri, zutik eta tinko dirau Alioshak. ■